



2.7 FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak ezinbestekoak dira gure balorezko proposamena, hau da, proiektua garatzeko. Hiru adar ezberdinetan banatzen da: ekoizpena (zerbait ekoiztea), arazoa konpontzea eta plataforma edo sareak (webguneak, appak) izatea. Zuhaitz-etxearen proiektu honetan, arazoa konpontzen saiatuko gara, gure inguruan (Goierri) ez baitago horrelako proiekturik. Halere, plataforma eta sareek ere paper garrantzitsua jokatu dute gure proiektuan, zerbitzua eskaintzeko garaian, oso garrantzitsua izango delako.

Goierriko herri txikiak indarra galtzen ari dira eta baso ugari daude. Gaintzan bertan, baso bat dugunez eta zuhaitz-etxeak inguruan ez daudenez, arazo hori konpontzeko eta laguntza bat emateko, aisialdi-gune bat sortuko dugu. Zuhaitz-etxeak asteburu lasai bat pasatzeko, naturaz disfrutatzeko, erlaxatzeko eta familikide, lagun edo bikotekidearekin joateko egingo ditugu. Horrez gain, naturaz disfrutatzeko eta inguruko produktuei probetxua ateratzeko aukera ona izango litzateke.

Gure proiektuak funtzionatu dezan, plataforma eta sareak sortzea eta erabiltzea ezinbestekoak izango dira. Izan ere, zerbitzua eskaintzeko webgune bat sortuko dugu eta bertan, erreserbatzeko aukera ere egongo da, nahiz-eta gero, zerbitzua, fisikoki emango zaien. Gure plataforman, zuhaitz-etxe ezberdinak, prezioak, eskaintza bereziak, kokapena, kontaktua, eskainiko ditugun jarduerak eta gure konpromezu ekologikoa egongo dira ikusgai. Bestalde, iritziak idazteko lekua ere egongo da.